

Herri Aldizkaria

otomotz

2003ko ekaina 88. alea



Jesus Segurola: txistularien artista

IRITZIZ-IRITZI: JOXE MARI GABIRIA

ERREPORTAIA: MILURTE BERRIKO ETXEA

IZERDI PATSETAN: TOURRA, HERRIKO TXIRRINDUZALEEN ERROMERIA

Goierri bus

MOTA GUZTIETAKO ZERBITZUAK

18-22-36-50-56-60 eta 82 plazatako
Autobusak eta literadunak komunekin



Teléfono: 943 72 52 50 • Fax: 943 72 58 70
E-mail: goierribus@euskalnet.net • www.goierribus.com

ARGAZKI ZAHARRA



Zumarragako jaietako haurren danborradan 60ko hamarkadan ateratako argazkia.

Aurreko ilaran ezkerretik eskubira: M^a Carmen Rodriguez, Jose Manuel Garrido eta Jose Antonio Badiola.

Atzeko ilaran ezkerretik eskubira: M^a Luisa, ... eta Oscar Bravo.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2003ko ekaina

Zikloturisten 25. urteurrena



Goierri Kirol Elkarteko zikloturismo sailak 25. urteurrena ospatu du ekainean. Hilaren 6tik 15era zikloturistek urte hauetan guztietan ateratako argazkiak izan dira ikusgai Itarte Etxean. Hilaren 15ean, berriz, Goierriko zikloturistek urteurren ospakizunetako egun handia izan zuten. Goizerako bi bizikleta irteera antolatu zituzten, bata luzea eta bestea motzagoa.

Bi irteeretan parte hartu zuten zikloturistak Azkoitian elkartu ziren eta elkarrekin itzuli ziren herrira. Zumarraga-Urretxu hiru aldiz zeharkatu ondoren, 25. urteurreneko argazki ofiziala atera zuten. Ondoren, bazkaria izan zuten. Bazkalostean, gehien nabarmendu diren zikloturistei oroigarriak eta garaikurrak banatu zitzaizkien. Zorionak!

Egunkariaren aldeko txosna

Urretxu-Zumarragako Egunkariaren aldeko plataformak txosna jarriko du Santa Isabel jaietan Areizaga-Kalebarren plazan. Txosna ondoan talde honek antolatutako hainbat ekitaldi izango dira: ostiralean Rita Aldaiaren kabaret saioa izango da 21:00etan, larunbatean Gorka Hermosa akordeoilari urretxuarrak kontzertua eskainiko du 21:00etan, igandean Bertso-eskolaren bertso trama izango da 22:00etan, astelehenan Kirmen Uriberenek poesia musikatu saioa eskainiko du 22:00etan eta asteartean Joxemari Karrere ipuin kontalariaren saioa izango da 23:00etan.

EHNA egiteko aukera


Ostiral honetatik aurrera urretxuar eta zumarragatarrok Euskal Herriko Nortasun Agiria, EHNA, egiteko aukera izango dugu Urretxuko kultur etxean. Ostiralean, 18:00etan, ekitaldi txiki bat izango da EHNA bideratzeko bulegoari irekiera emateko. EHNA bideratzeaz arduratuko diren Bai Euskal Herriari! ekimeneko lagunak astearte eta ostegunetan 18:30etatik 20:30etara izango dira kultur etxean. EHNA eskuratzeko hiru argazki eta erroldatze agiria eraman behar dira eta 12 euro ordaindu.



Itsaski zozketa

Argazkian ikusten duzuen Iñaki Amondarainek irabazi zuen euskararen normalizazioaren aldeko maiatzeko itsaski-zozketa. Ikusten duzue, itsaski otarra irabaztea baino gauza hoberik ez dago betiko lagunak hurbil daitezen! Hurrengo zozketa Berria egunkari berriaren aldekoa izango da Santa Isabel egunean, eguerdiko 2etan, Antion. Zorte on guztiei!

Ferretería **BRAVO, S.L.**



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina
☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31
ZUMARRAGA

Amaia Iturrioz bertsolari gazteari saria

Amaia Iturrioz urretxuarra Gipuzkoako Eskola Arteko 23. Bertsolari Txapelketan saritua izan da. Amaiak Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako en artean parte hartu zuen bertso-paper atalean. Bere mailakoek bertso bana idatzi behar zuten "Ilargiarekin



hitz egiten dut gauero" gaitzat zutela eta Amaiak epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen. Saria ekainaren 6an Lazkaon izan zen bat-bateko finalean eman zioten. Dirudienez, Urretxu-Zumarragako Bertso Eskola fruituak ematen ari da jada. Hona hemen Amaia bertsolaria:

Gaua iritsi (e)ta oheratuz murgiltzen naiz ametsetan; suziri gorri batean sartuz gorantz noa izarretan. Eta haruntza ailegatzean hasi be(ra)rekin berbetan ne(r)i gaueroko bidaiatxo hau gertatutzen zait benetan. Doinua: Ari naizela, ari naizela.

Irrintziren Dantzari Txiki Eguna



Hilaren 8an Irrintzi Dantza Taldearen Dantzari Txiki eguna ospatu zen Zumarragan. Dantza jaialdian Urretxuko Lurra, Legazpiko Korosti eta Sustraiak, Lazkaoko Oin Arin, Markinako Zerutxu eta Zumarraga-Urretxuko Irrintzi dantza taldeek parte hartu zuten.

Herri Aldizkaria

Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.

Merkea eta ona!

Narmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona

ARTURO

Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU

OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA

ETXABURU

merenda-lekua

Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU



Joxe Mari Gabiria

Joandako urteak eta musaren bertuteak

Txiki-txikitatik egin izan dit ilusioa urteak betetzeak. Ez etxean orain bezalako opari sorta eta ospakizun berezirik izaten zelako. Orduko ekonomiak ez baitzuen horretarako aukerarik ematen. Baina urte bete gehiago izateak handiagoa egin zinela adierazten zuen. Handien munduan sartzeko beste urrats bat emana zenuela.

Akordatzan naiz sei urte noiz beteko irrikaz nola egon nintzen Jaurnartzea egin eta, handiak bezala, igandeetan elizara joateko.

Hamairu urte betetzea gizon traza hartzen hasia izaten zen, adin horretara iristean egiten baitzizkigun amak estraineko praka luzeak. Nire hamairu urteak ez ziren,ez, nik nahi bezain pronto iritsi, ez arraioa.

Hamairu ... hamalau ... hamabost eta hama-seiak, etorri bezala joan ziren, ez gatz ez berakatz; tartean "Sol y Luna"-n eta "Jai Club"-en zaharren begiradarik gabeko lehenengo dantza-lotuak, "Piper" zigarro "rubio" mentolatuak eta garrafoiko ginebraz egindako kubatak.

Ordurako musean egiten ikasiak ginen. "Hermanotako" gazte klubean biltzen ginen garai hartan hamalau-hamabost urteko neska-mutil nerabeak, ligatze kontuetan lehenengo lezioak hartu, musika entzun, eta karta jokuan egiteko. Gure ustean, musean jakitea ia ezinbestekoa zen ganorazko heldutasunera iristeko. Horrexegatik, larunbat arratsaldeetan, gizonak bezala han aritzen ginen, pontxe kopa bati tragotxoak emanez, duple edota hogeita hamaikako keinuak nola egin ondo asmatu ezinik, gizon joku hartan ikasi nahiean.

Mila bederatziehun eta hirurogeita zortzigarren urtea zen. Beatles eta Rolling puri-purian zeuden, eztaibidak ere izaten genituen gure artean nortzuk ote ziren hobeak. Euskal Kanta Berria lehenengo pausoak ematen ari zen. "Mendian larrartean aurkitzen da loretxo bat..." kantatzen genuen gure Herriaren zapalkuntza politiko, kultural, ekonomikoaz jabetzen hasi berriak ginen gaztetxook. "Gazte gera gazte ta ez gaude konforme..." protesta egiteko leloa zen, ez, ordea, kanpoko inoren kontra. Herrian bertan, bai baitzegoen zeri eta nori protesta egin... Eskola, Eliza, gurasoak, gizartea bera ziren gure protesta gai, den-denek ezartzen baitzigu-guten loturaren bat.

Ordutik hona, urtebetetze asko izan ditugu, gero eta ilusio gutxiagorekin, noski. Ez baita berdina, 19, 29, 39 edo 49 urte betetzea. Mende erdira arrimatu gare-

nok, aurrera begiratu eta hotzikara sentitzen dugu, onenak emanda gaudela ikusten baitugu. Atzera begira jarri eta ohartzen gara historiak ez digula opa izan lasaitasun une bat bera ere. Guretzat dena izan da desoreka, krisia, haustura, giza-baloreen aldaketa... Hippien "amodio librearen" aldeko aldarrikapena egiten zuten bitartean, sexu-harremanetan errepresio gogorrena ezagutu genuen. Eta zenbaitzuk, errepresio giro hari aurka egiten ausartu ziren askok, penaltiz galdu zuten partida eta gaurko gazteei barregurea ematen dien "bertutea".

Autoritarismoan oinarritutako eskola eredu batean hezi gintuzten, noizbait lanpostu on bat hartu eta gizartearentzat probetxuzko izan ginatezen. Orain, ondorengo belaunaldientzat ongizate gizartea eraikitzen onenak eman eta jubilazioan pentsatzen hasiak garen honetan, zalantzan eta beldurrez bizi gara, ea guretzat jubilaziorik izango ote den.

Berrogeita hamar urteren bueltan gabiltzanok mareatuta gaude hainbeste aldaketez. "Mi mama me mima" esanez ikasi genuen irakurtzen. Tintaz busti behar izaten zen plumilaz idatzi genituen lehenengo hitzak, paper sekantea aldamenen, eta txanpoiren bat noiz egingo beldurrez. Gaur museoetan bakarrik ikusten diren idazmakinak ezagutu genituen, gero multikopistak, fotokopiadarak eta, azkenean, lehen ikasitakoak ez ahazten nahiko lan badaukagunean, informatika eta interneten iraultzak harrapatu gaitu.

Ordenagailuko programa, ondo kostata, manejatzen hasi orduko, aldatu egiten dizute, jarriko zarela eta lana errazago egingo duzula esanez. Gainera, ohartzen zara aldamenen dituzun lankide horiek ez dutela zu bezalakoentzako errukirik. Ez dizute garbi esango, baina badaukizu tontotzat hartzen zaituztela.

Okerrena da ez lanean bakarrik, etxean ere antzeko zerbait gertatzen zaizula. Garai batean aita zintzo, ia dena zekien hura pikutara joan dela, zure seme-alabek ere berdintsu pentsatzen dutela.

Baina, hori bai; urteak pasa ahala, musean hobeto jokatzen ikasi duzu. Ez da horretan eramango dizun gazte karreradun jakintsurik. Oraindik zerbait bazarela sinesteko aukera ematen dizu musak. Zaila da besteen esperientziatik zerbait ikastea. Baina badaezbada, horra hor nire aholkua oraindik gazte zaren horri: ikasi musean, zuri ere noizbait baliagarri izango zaizu eta.

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Hondartzara joan al zara? Ez al zara galipotaren beldur?



Ainhoa Otermin

Duela aste batzuk Zumaian izan nintzen, baina orduan ez zegoen galipotik. Aurrerantzean ez dut joateko asmorik eta joaten banaiz toaila gainean egoteko izango da. Beldur pixka bat ematen dit.



Amaia Aranburu

Aurten ez dugu hondartzara joateko asmorik, uretan galipota baitago eta umearekin joateak beldurra ematen baitigu. Aurten igerilekura joan beharko dugu!




Antton Fernández

Aurten ez naiz oraindik hondartzara joan. Ez dut joateko gogo handirik, ez galipotarengatik, hondartzara joan zalea ez naizelako baizik. Lehengoan Donostian jendea hondartzan zegoen eta ondoan buzo txuridunak garbiketa lanean.



Gurutz Lete

Lehengoan hondartzara joan nintzen eta galipota zegoen. Beldurra baino gehiago hozkia eman zidan. Dena den, berriro ere joatekoa naiz.



Javier Alvarez

Aurten ez gara oraindik joan eta iazko udan ere ez ginen joan. Ez zait hondartzara joatea gustatzen, baina are gutxiago dena zikinduta ikustea.



Maite Fernández Muga

Oraindik ez gara joan, baina joatekoak gara. Galipotak ez digu beldurrik ematen. Izan ere, garai batean ere galipota egoten zen eta lasai asko joaten ginen.

Montaje e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrokoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA
Guireta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80
URRETXU

PAKO VIERBUCHER

Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 ☎ 72 11 55 Zumarraga	Labeaga, 43 ☎ 72 16 81 Urretxu
---------------------------------------	--------------------------------------

URKI
liburudenda

Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA

Bioklimatika eta Milurte berriko etxea



Ingurumenarekiko kezka handitzen doan heinean, geroz eta gehiago dira sentsibilitate hau kontuan hartuz egiten diren eraikinak. Bioklimatiko izena duten eraikin hauetan energia iturri berriztagarriak erabiltzen dira, energia kontsumoa murrizten da, naturari kalterik egiten ez dioten materialak erabiltzen dira... Urretxu-Zumarragan ere badugu etxe bioklimatiko bat: Jose Luis Zaldúa Antiora bidean egiten ari dena. Jose Luisek bere etxeke hotz-beroa era ekologikoan kontrolatuko du. Horretarako etxea eguzkiaren arabera kokatu eta orientatu du eta etxea eta ura berotzeko irradiatze-zolua eta eguzki plakak erabiliko ditu. Energia kontsumoa ahalik eta txikiena izan dadin, domotika ere erabiliko du. Domotika hitzak robot etxea esan nahi du eta ekologiarekin, erosotasunarekin eta segurtasunarekin lotua dago.

Jose Luisek argi utzi nahi du bere etxea semidomotikoa eta semibiotikoa dela, ez baititu domotikak eta bioklimatikak eskaintzen dituzten aukera guztiak erabiliko (argindarra, esaterako, Iberdrolari erosiko dio). "Bioklimatikari dagokionez, garrantzitsuena etxearen kokapena eta orientazioa da. Etxea parzelaren bazter batean dago ahalik eta eguzki energia gehien har dezan. Bestalde, etxearen iparraldeko hormak leiho gutxi ditu, ekialdekoak gehiago eta mendebaldekoak eta hegoaldekoak dexente gehiago. Honela etxea berez ahalik eta gehien berotuko da eta ahalik eta argi gehien sartuko da. Eskailera, beheko sua eta igogailua iparraldean daude hotzari eusteko".

Bioklimatikak etxearen beste hainbat ezaugarri ere aintzat hartzen ditu. "Adreilu sistema normala erabili dut, baina egun hotzari hobe aurre egiten dioten sistimak erabili daitezke. Hauxe guztiez gain, leihoak ere

domotika: ren ardatzak?

garrantzitsuak dira: udan beroari eta neguan hotzari aurre egiteko kristalak lodiera jakin batekoak izatea komeni da, ahalik eta argi gehien sartu eta honela argindar gutxiago gastatzeko handiak izatea komeni da...".

Bestalde, Jose Luisen etxeak ez du teilategalik eta terrazetan baratzea eta lorategi txikia jarri ditu. "Etxe bioklimatikoetan erdaraz *cubiertas ajardinadas* deritzotenak erabiltzen dira. Gero eta kontratista gehiago estalki lauak erabiltzen eta bertan baratzeak edo lorategiak jartzen ari dira. Zergatik? Lur geruza termoerregulagarria denez, azpian dauden gelak udan freskoagoak dira eta neguan epelagoak. Gainera, 40 m²-ko baratz nahikoa da etxeko barazki premiak asetzeko".

B a i n a orainarte aipatutakoak ez dira nahikoa etxearen hotz-beroa kontrolatzeko eta ez dute balio ura berotzeko. Hori dela eta, Jose Luisen etxean, gaintzeko guztietan bezala, berogailuak

ere egongo dira. Hori bai, etxea era ekologikoan berotuko du eguzki plaken, beheko suaren eta irradiatze-zoluaren bidez. "Eguzkia munduan dagoen energia iturri handiena da eta aprobetxatu egin behar da, ez baita kutsagarria". Irradiatze-zolua, berriz, ez da hain ezaguna gure artean, baina Europako herri batzuetan asko erabiltzen da. "Instalazioa egin didan Eguzki-Indar enpresako Jokin Aldazabalek esan didanez, paraje hotzetan asko erabiltzen da etxea berotzeko. Irradiatze-zoluak geotermia, lurraren berotasuna, aprobetxatzen du. Neguan lurraren temperatura 14-15 gradu-

koa denez, etxearen lorategiko lurrazpian 500 metro tutueri sartu dira metro Erdiko sakoneran. Tutu horietan ura doa: lurra ura berotuko du, motor baten bidez ura makina gelara joango da, bertan urari temperatura kenduko zaio eta ura berriro kanpora bidaliko da 6-7 gradutan. Beheko suaren azpian ere tutuak sartu ditugu eta sistema beraren bidez etxea eta ura berotuko ditugu. Eguzki plaken, geotermiaren eta beheko suaren funtsa ura berotzea da, ez argia ateratzea".

Irradiatze-zoluak eta eguzki plakek energia iturri berriztagarriak erabiltzen dituzte, baina oraindik oso gutxi erabiltzen dira gure artean. Hori dela eta, batek edo bestek desabantailaren bat izan dezaketela uste dezake. "Gauza hauek instalazioa egitekoan garesti samarrak dira, baina frogatu-

ta dago urteak pasatu ahala (10-15 urtetan) ekonomikoki errentagarriak direla. Bestalde, irradiatze-zoluak etxea uraren bidez berotzen du eta berogailu sistema hau osasungarriena eta beroa hobeen

banatzen duena da. Beizamako etxe batean geotermia erabiltzen dute eta, esan zigutenez, horrekin nahikoa da etxea neguan berotzeko. Era berean, Garrantzitsua da jakitea halako etxe bat geotermiaz berotzeko 300 m²-ko lorategia behar dela".

Hauek guztiek hainbeste abantaila badituzte, zer dela eta ez dira gehiago erabiltzen? "Oraindik ere ez dago kultura hau hedatuta eta ia-ia aitzindariak gairela esan daiteke. Hori dela eta, arazoak egoten dira gauza hauek martxan jartzeko. Kontratisten eta gremioen joera ohiko material eta sisti-

**"Bioklimatikan
garrantzitsuena
etxearen kokapena
eta orientazioa da"**


MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00


OSTATU ITSASO
☎ 943 88 03 15 - Itsaso

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70


**ARKUPE
TABERNA**


UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA


mekin jarraitzea da. Gu bezalako ausart batzuen berri izan ondoren, jendea poliki-poliki hasiko da".

Jose Luisek ere ez ditu bioklimatikak eskaintzen dituen aukera guztiak erabili, baina orainarte aipatutakoak baino baliabide harrigarriagoak eskaintzen omen ditu. "Legazpiko etxe bioklimatiko batean, etxea egiten hasi aurretik azpian harri pilo bat bota zituzten eta eguzkiak jotzen duenean, leiho baten bidez, harriak eta beraiekin etxea berotu egiten dira. Argindarra sortzeko eguzki plakak erabiltzea, euri urak deposito batean biltzea eta ureztapenerako erabiltzea... ere bioklimatikoak da. Urretxu edo Zumarragan etxe bioklimatikoak egiten dituen estudio bakarra egongo balitz, nire lana askoz ere errazagoa izango litzateke. Josetxo Uribe-Etxeberria arkitektuak diseinu polita egin du, baina ez zekien ezer gai honetaz eta alde batetik bestera ibili behar izan dut etxe semibioklimatiko hau egiteko. Badakit gauza askotan ez dudala ingurugiroa aintzat hartu (egurra nondik ateraden, etxeko pintura...), baina gehiago saiatuko banintz beharbada txoratu egingo nintzateke".


Dena den, Jose Luisek sekulako lana hartu du: Valentzian izan zen bioklimatikari buruzko jardunaldi batzuetan, Euskal Herrian geotermia erabiltzen duten bakanekin hitz egin du... "Abantaila bat izan dut: udaletxean lan egiten dut eta, nahiz eta udalak gai hauetan *segurola* samarrak izan, bertara gai hauei buruzko informazio asko heltzen da. Jendeak bioklimatikaren berri izatea eta erabiltzea gustatuko litzaidake. Hori dela eta, nahi duenak etor dadila galdetzera. Herrian jendeak ezagutzen nau eta badaki izadiarekiko sentsibilitatea dudala. Ez zen bate-

re ondo egongo etxe normala egitea pentsakera hori izanda. Etxea egiteko aukera izan dut eta ausarta izan naiz. Gauza hauetakoz batzuk ondo frogatu gabe daude, baina gauza sinpleak direla uste dut. Hori bai, norbaitek halako zerbait egin nahiko balu, etxearen proiektua egitean gela bat makinariarentzat erreserbatzeko aholkatuko nioke".

Ingurumenarekiko kezkak bultzatu du Jose Luis Zaldúa ausardiaz bioklimatika erabiltzera. Ausardia berberaz, domotikari ere garrantzia eman dio. "Domotika etxe bioklimatikoarekin uztartua dago. Bioklimatikak domotika erabiltzera behartzen zaitu. Izan ere, domotikak energia kontsumoa aurrezten laguntzen du". B a i n a domotikak, energia aurrezpenaz gain, segurtasuna eta erosotasuna ere badakar. "Etxe honetan zenbait d e t e k t a g a i l u daude: ur-jarioen detektagailua, suteen detektagailua... Etxetik kanpo gaudela tuteria batek jarria badu, ur pasoa automatikoki itxi egingo da eta telefono mugikorrean mezua jasoko dugu. Bestalde, igogailua, etxeko tresna ezberdinen erabilera programatzeko aukera... ere domotikaren barne sartzen dira".



Argazkian ikusten diren hodiekin ur epela dakarte lorategitik eta lehen solairutik. Makina hauek berotasun hori erabiliko dute etxea eta ura berotzeko.



Lorategi azpiko hodiedetako ura etxea berotzeko erabiliko da.

FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

- MEDIKUNTZA PRIBATUA.
- HORTZ KLINIKAK.
- TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



- BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
- HERIOTZ ASEURUA.
- ISTRIPU ASEURUA.
- BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behe eskuina
20600 EIBAR
☎ 943 20 24 70

La Previsora Bilbaina, S.A.


Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa

2003ko ekaina

J. L. Arruebo: "Rolling Stones-en kontzertuek energia ematen didate"

Hilaren 25ean 40 urte bete dituen Rolling Stones talde mitikoak lehen aldiz Euskal Herrian jo du, San Mamesen hain zuzen ere. Urretxu eta Zumarragako jende asko bertan izan da, talde ingelesak zaletu sutsuak baititu gure bi herriotan. Hauen artean Jose Luis Arruebo dugu, zeinek 1966az geroztik Mick Jagger-en taldearen inguruan lortu duen guztia bildu duen. Hauekin guztiekin erakusketa eskaini du ekaineko lehen erdialdean Urretxuko Juan de Lizarazu aretoan.



Jose Luis Arruebok 14 urte zituela, 60 hamarkada erdialdean, entzun zuen lehenengoz Rolling Stones taldea, garai hartan Bidezkar kalean zegoen jolas-aretoan. Ordutik Jose Luis Rolling Stones taldearen zaletu sutsua da. "Jolas-areto hartan musika makina bat zegoen eta lagunok txandaka pezeta bat ordaintzen genuen taldearen abestiak entzuteko. Musika gogorra atsegin nuen eta Rolling Stones garai hartan zegoen gogorrena zen. Musika talde honek kaleratzen duten guztia atsegin dut".

Hain zen haundia Jose Luisen Rolling Stones taldearenganako mirespena, non euren inguruko guztia biltzen hasi zen. "Klaseko mutil batek Beatles taldearen inguruko gauzak biltzen zituen eta nik, Rolling Stones taldea gustuko nuen, nire gustuko taldearen inguruako gauzak biltzea erabaki nuen".

Ordutik Jose Luis Arruebok denetik bildu du: posterrak, diskoak, egunkari-zatiak... "Diariovasco dendako Eliasen laguna nintzen eta bertara joaten

nintzen aldizkari guztiak begiratzera. Rolling Stones taldeari buruzko zer edo zer zekarten aldizkari guztiak erosten nizkion".

Bildu dituen gauza guztien artean, kuttunenak zeintzuk dituen galdetu diogu Jose Luisi eta Rolling Stones taldeko kideek berari sinatutako bi disko aukeratu ditu. "Lehen 99an sinatu zidaten taldeko hiru kidek. Donostian ostatu hartu zuten Santiagon jo aurretik eta bertan diska bat sinatu zidaten. Beste diskoa Bill Wyman-ek sinatu zidan iazko Jazzaldian. Abesti eta abesti artean etengabe diska sinatzeko eskatzen aritu nintzen eta ez zidan jaramonik egiten. Jada etsipenak jota nengoenean, kontzertua amaitu ostean, sinatu zuen diska".

Ikusten duzuen, Jose Luis Arruebo Rollingzaletasunak jota dago, baina 1998 urtea arte itxaron behar izan zuen bere talde kuttuna lehenengoz zuzenean ikusi eta entzuteko. "1976an etorri ziren lehenengoz Madrilera, baina pisua ordaintzen ari nintzen eta ezin izan nin-

tzen joan. 1990an etorri zirenean, hanka-ko ebakuntza izan nuen. 1998an, azkenean, kontzertu batera joatea lortu nuen. Izugarri ondo pasa nuen, 11 hilabete beranduago Santiagon jotzera etorri zirenean kontzertu hartara joateko bereak eta bi egin nituen. Fragarri ere idatzi nion sarrera baten eske! Donostian ostatu hartu zuten, bertara joan nintzen eta han neska batek bere sarrera saldu zidan. Egun hartan lana utzi eta Galiziara joan nintzen".

Hilaren 25ean Jose Luis San Mameseko kontzertuan izan zen. "Kontzertu guztietan lehen ilaran izan naiz. Buila eta dantza egin beharra dut. Lehenengoz ikusi nituenean alabak zer edo zer egin zidatela esan zidan, aldatua itzuli nintzela. Izan ere, Rolling Stones taldearen kontzertuek energia ematen didate. Aurtengo bira elkarrekin eskainiko duten azkena izango den susmoa dut. Izan ere, laupabost urtez behin antolatzen dituzte birak eta jada 60 urte pasatxo dituzte".

Santa Isak



EKAINAK 27, OSTIRALA

8:00.- Euskadi enparantzan **ASTEKO AZOKA**.

11:30.- "Secundino Esnaola" Musika Eskolako **TRIKITILARIEN** kalejira.

19:00.- **BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK** herriko kaleetan zehar.

20:00.- **GOIARGI** eta **KIMETS-GOIARGI** abesbatzen emanaldia Mertzzedariatar lekaikeen elizan.

21:00.- **RITA ALDAIA** Kabaret Kalebarren-Areizagan.

22:30.- **ROCK KONTZERTUA "JODETE"**, "KRETI-NOS" eta "KAÑERIA 3" taldeekin Zelai-Aritzin.

23:00.- **ELKARTEEN ARTEKO XXXVIII. DANBORRADA**: Herriko elkarteek gain koadrilek, Goiargi eta Kimets-Goiargi abesbatzek, Zumarragako Musika banda eta Urolatarrak txarangak hartuko dute parte.

01:00.- **DANTZALDIA "BIZAR GORRI"** taldearekin Euskadi enparantzan.

03:00ak arte: **UROLATARRAK** txarangaren kalejira.

EKAINAK 28, LARUNBATA KOADRILEI ESKAINITAKO EGUNA

11:30.- **KOADRILAK ELKARTU** eta bazkarirako mahaiaik eta aulkiak jartzen hasiko dira Euskadi enparantzan.

11:30.- Zumarragako Musika Bandaren **KALEJIRA**.

13:00.- "Secundino Esnaola" Musika Eskolako Orkestraren **KONTZERTUA** Zelai-Aritzin Aretoan.

13:00.- **HERRI-POTEOA** trikitalariekin.

14:00.- **LUZ** irratizaleek antolatuta, **ANTIOKO ELIZA AKTIBATZEA MONUMENTU HISTORIKOEN DIPLOMARAKO**. (8ak arte).

14:00.- **KOADRILEN BAZKARIA**.

16:30.- **VIII. MUS TXAPELKETA**, Txoko eta Haizea tabernekin antolatuta.

18:00.- **PONIAK ETA ADARDUNAK** Zelai-Aritzin pilotalekuan.

18:00.- **XXXII. DANTZA LIBRE TXAPELKETA** Euskadi enparantzan. Eguraldi txarra eginez gero, Zelai-Aritzin Aretoan egingo da.

18:00.- **PROFESIONALEN ARTEKO PILOTA PARTIDUAK**.

19:30.- **DANTZA ERAKUSKETA** Euskadi enparantzan. Eguraldi txarra eginez gero, Zelai-Aritzin Aretoan egingo da jaialdia.

21:00.- **GORKA HERMOSAREN** Kontzertua Kalebarren-Areizaga plazan.


23:15.- **SU ARTIFIZIALAK, ZARAGOZANA** etxearen eskutik.

23:30.- **SUZKO ZEZENA** herriko kaleetan zehar.

23:30.- **ROCK KONTZERTUA** Zelai-Aritzin pilotalekuan.

00:00.- "**LARRAIN DANTZA**" Euskadi enparantzan.

00:30.- **DANTZALDIA "NUEVO TALISMAN"** orkestrarekin Euskadi enparantzan.



UZTAILAK 1, ASTEARTEA

11:00etatik 13:00etara eta 17:30etatik 20:30etara **HAURRENTZAKO PARKEA** Euskadi enparantzan.


18:30.- Herriko agintariak, "Antzinako Ama" txistulari taldearekin batera, **ANTIOKO AMARI BISITA** egingo diote.

19:30.- Andre Maria Jasokundekoaren parroikia-elizan, Parrokiko abesbatzak abestuta, **ESLAVAREN SALBEA**.

22:00.- "1937 **GOGOAREN BIDEZIDORRETATIK**" dantza eta irudi ikuskizuna Zelai-Aritzin Aretoan.

23:00.- **JOSEMARI KARRERE** ipuin kontalaria Kalebarren-Areizagan.

23:30.- **DANTZALDIA** Zumarragako Musika Bandarekin Euskadi enparantzan.



delak 2003

EKAINAK 30, ASTELEHENA

11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara
HAURRENTZAKO TAILERRAK Euskadi enparantzan.
18:30.- GOITIBERA-JAITSIERA Arkaitzetatik.
20:00.- DANTZALDI-KARAOKEA "EGAN" taldearekin
Euskadi enparantzan.
22:00.- KIRMEN URIBERen saioa Kalebarren-
Areizagan.
23:00.- DANTZALDIA "EGAN" taldearekin Euskadi
enparantzan.

EKAINAK 29, IGANDEA UMEEI ESKAINITAKO EGUNA

8:00.- LUZ irratizaleek antolatuta, ANTIOKO ELIZA AKTIBATZEA
MONUMENTU HISTORIKOEN DIPLOMARAKO. (12ak arte).
9:30.- KALEJIRA "Antzinako Ama" txistulari taldearekin.
10:00.- Zumarragako VII. XAKE txapelketa Euskadi enparantzan.
10:00.- Galeperra E.A. elkarteak antolatuta bazkideentzako PLATER-
TIRAKETA Urtatzako tiro-zelaian.
11:30.- Alkateak ALKATE TXIKIARI AGINTARITZA EMATEA, eta pre-
goia irakurtzea.
12:00.- Auto Klasikoan LOIOLA Rallyaren helduera Euskadi enparantzan.
12:30.- Irrintzi dantza taldearen DANTZA SAIOA eta UMEENTZAKO
JOLASAK Areizaga-Kalebarren enparantzan.
13:00.- Auto Klasikoan LOIOLA Rallyaren irteera.
13:00.- Zumarragako Musika Bandaren KONTZERTUA Zelai-Arizti
Aretoan.
16:15.- Haurren Danborradan parte hartuko duten konpainia guztiak La
Salle-Legazpi ikastetxeko jolastokian bilduko dira.
17:30.- HAURREN DANBORRADA.
19:00.- Ustekabez betetako DANTZALDIA umeentzako,
EUSKODISKOREkin Euskadi enparantzan.
19:30.- UROLATARRAK txarangarekin KALEJIRA.
22:00.- BERTSOAK, ANTZERKIA eta IRUDIAK Kalebarren-Areizagan.
23:00.- DANTZALDIA "ESMERALDA" orkestrarekin Euskadi enparan-
tzan.



UZTAILAK 2, ASTEAZKENA SANTA ISABEL EGUNA

8:00.- "Antzinako Ama" txistulari taldearen KALEJI-
RA.
9:30.- Euskadi enparantzan elkartu eta herriko agin-
tariak nahiz herritarrak Andre Maria
Jasokundekoaren parrokia-elizara joango dira, herri-
ko parrokiako kabildoekin batera Antioko Amaren eli-
zara igotzeko.
11:00.- MEZA NAGUSIA. Hasieran, ohi den bezala,
herriko dantzariak EZPATA-DANTZA eskainiko
diote Ama Birjinari. Ondoren berriz, elizaren ingur-
uan prozesioa txistulari eta ezpata-dantzariekin
batera.
12:30.- OHOREZKO AURRESKUA eliza aurreko
zelaian.
13:00.- Bertsolariak (Joxe AGIRRE eta Imanol LAZ-
KANO), Tolosako dultzaineroak eta trikitilariak.
14:30.- HERRI-BAZKARIA Antio inguruan bertsolari
eta trikitilariak alaiturik.
17:30.- ERROMERIA txistulariekin (ANTZINAKO
AMA taldea), Tolosako dultzaineroekin eta trikitila-
riekin.
19:00.- Antioko Amari BEDERATZIUURENA eta
ARROSARIOA.
20:30.- AGURRA eta ITZULERA txistulariak, dul-
tzaineroak eta trikitilariak alaituta, eta agintariak
eta ezpata-dantzariak aurretik direla.
21:15.- KALEKO EZPATA DANTZA.
21:30.- ERROMERIA txistulari eta trikitilariekin
Euskadi enparantzan.
21:30.- KALEJIRA ALDATZ GORA fanfarrearekin.



UZTAILAK 6, IGANDEA JUBILATUEI ESKAINITAKO EGUNA

9:30.- Mountain bike ibilaldi ez-lehiakorra Euskadi plazatik irtenda.
10:00.- Galeperra E.A. elkarteak antolatuta herri mailako PLATER-TIRAKETA,
"Bartolo Iturberen omenezko" sari berezia, Urtatzako tiro zelaian.
12:30.- IDI-PROBAK.
12:00 - ALBERO dantza taldearen erakusketa eta ondoren, Zumarraga-
Urretxuko GOIZALDE Jubilatuen Abesbatzaren saioa Zelai-Arizti Aretoan.
14:30.- Jubilatuen BAZKARIA.
17:00.- Jubilatuentzako DANTZALDIA EUSKODISKOREkin Euskadi enparan-
tzan.
18:30.- IDI-PROBAK.
20:00.- Idi-probetako SARI-BANAKETA.

Jesus Seguroloa: txistu instrumentuen pare jarri


Txistularitza munduak asko zor dio Jesus Seguroloa artisau zumarratarri. Izan ere, Jose Inazio Ansorenarekin elkarlanean, txistua hobetu eta izen handiko musika tresnen pare jarri baitu. Baina Jesusek, txistugintzaz gain, pintura, eskultura eta literatura ere jorratu ditu urteetan eta urteetan. Hilaren 14an Seguroloaren "Txistulari" eskultura inauguratu zen Zumarragako Trintxeran. Berarekin hitz egiten izan gara txistugintzan egindako lanaz eta txistularitza munduaz.

Nolatan hasi zinen txistugintzan?

40 urte beteak nituela hasi nintzen txistuak egiten, 60 hamarkada aldean. Autonomo nenbilen lanean eta etxeko batek, halako gauzetako erraztasuna nuen, txistu bat egiteko eskatu zidan. Txistua jotzen ere ez nekien, baina Isidro Ansorenaren neurri batzuk eman zizkidan eta hala egin nion. Ondoren, txistu gehiago egiten segitu nuen. Txistua jotzen ez nekien, txistulariei ematen nizkien frogaz zitzaten. Nondik-nora nenbilen ere ez nekien. Beti mendizalea izan naiz eta Urbiara asko joaten naiz. Igandero-igandero Aita Lasari laguntzera igotzen zen txistulari oñatiar batek erakutsi zizkidan notak. Orduetik aurrera beste gauza bat izan zen.

Zein da txistu on baten muina?

Txistuak bi fazeta ditu: akustika eta afinazioa. Akustikari dagokionez, txistua behar den bezala egin behar da. Bokila eta lengüeta bere puntuan kokatu behar dira, esaterako. Eta gero afinazioa dauka-



zu: zuloen diametroa, altuera, txistuaren luzera... Behar bezalako akustika lortu nuen. Txistulariek erraztasun handiagoz eta estridentziarik gabe jotzea lortu nuen, lehenago putz egiten lehertu beharra baitzuten.

Nola lortu zenuen afinazioa hobetzea?

Txistuak seriean egiten hasi nintzen eta hauetako bat Jose Inazio Ansorenaren eskuetara iritsi zen. Jotzeko eskaintzen zuen erraztasuna gustatu zitzaion eta nire txistuak saltzen zituzten dendara jo zuen niregatik galdezka. Dendakoak niri kompetentzia egin nahiko zidala pentsatu zuen eta ez zion esan nor nintzen. Ansorenak batenbati Seguroloa abizena entzun zion eta Seguroloa guztiak telefonoz astindu zituen nirekin eman zuen

arte. Berarengana joan nahi nuen esan zidan eta hala joan nintzen.

Zer lan egin zenuen Ansorenarekin?

Larunbatero joan nintzen kontserbatoriora ia bi urtez. Lehenengo afinazioa hobetzea lortu genuen, gero silbotearekin hasi ginen, gero txilibituarekin... Gero fa soila lortu nahian hasi ginen, ordurarte sostenidoan soilik baitzegoen. Horretarako berak txistua bi zatitan egitea nahi zuen, ordurarte bakarra izaten baitzuen. Azkenean, txistuaren pieza bat bi zentimetro luzatuz, fa soila lortu genuen. Horri esker gaur egun txistuak edozein instrumenturekin batera jo dezake orkestran, bandan... Silbotearekin eta gitarrarekin behin jo zuten kontzertu bat ikaragarri gus-tatu zitzaidan.

a gainontzeko zuen txistugilea

Halako arrakasta izan ondoren, txistugintzan soilik aritu al zinen?

Hainbeste txistu zeuden egiteko, non txistuari bakarrik helduta ere ezin denentzako egin. Nik izan nuen presioa gehiegizkoa zen. Mendira joaten nintzen eta bueltatzen nintzenean beti zegoen baten bat zain txistua egiteko eskatzeko. Ikaragarritzko aldea zegoen txistu zaharretatik hauetara eta mundu guztiak berriak nahi zituen. Ez nituen txistuak jo nahi zuen edozein mutikorentzat egin: Gasteizko, Diputazioko, Iruñeako, Donostiako... bandarentzat ere egin nituen. Baita Baiona eta Donibane Garazirako ere... Herri gehienetan izango dira nire txistuak.

Hilaren 14an Jesusen "Txistulari" eskultura inauguratu zen trintxeran

Kalkulatu al duzu inoiz zenbait txistu egin dituzun?

Milatik gora seguru. Hasieran boj egurrarekin hasi nintzen, gero bertako egurrarekin, ebanoarekin ere bai... Bertako egurrarekin elorria oso goxoa eta gogorra da. Egur bakoitzak soinu ezberdina du. Gaztaina ere ona da. Donostiako ei ez zaie asko gustatzen, baina Bilbokoei bai.

Baten bati erakutsi al diozu teknika?

Bai, ilobei irakatsi nien eta orain ere beste batzuei ere irakastekoa naiz. Gancedo eta Keller ere nik ateratako neurriekin aritzen dira txistuak egiten. Jose Inazio Ansorenak lehen txistu on bat egiteko 18 txistu egin behar zirela eta txistu on horiek hauen erdia zirela esan zidan.

Lanbidea zela eta, txistua jotzen ere ikasi zenuen...

Txistu pieza bat edo beste jotzen ikasi nuen, Secundino Esnaola Eskolako klaseetara ere joan nintzen. Ondo ikasi nuen eta inoiz kalejira baten edo besten parte hartu nuen. Erraztasuna nuen, baina etxean zarata ez ateratzearen, bizilagunek ez zutelako gustura entzungo eta, utzi egin nuen.

Jarraitzen al duzu txistuak egiten?

Txistuak egiteko eskatzen didate, baina azkenaldian konpromisozko bat edo beste besterik ez dut egin. Izan ere, beste zaletasun batzuk ere baditut: margotzea dela, eskultura dela, idaztea dela...

Nolatan hasi zinen eskulturaren?

Marrazketarako erraztasun handia nuen. Eskolan muestrak jartzen zizkiguten eta niretzat ez zegoen zailik. Aurreko bi hankak altxatuak zituen zaldi baten marrakia aurkitu nuen eta, sekula egurrean jardun gabe, hura egurrean egitea erabaki nuen. Ordutik hainbat taila egin ditut: amaren eta aitaren aurpegiak, paisaiak... Beti egurrarekin lan egin dut. Keixa goxoa da, kaoba ere egur ona da...

Hilaren 14an "Txistulari" eskultura inauguratu zen Trintxeran...

Eskultura hori egiteko proiektua Jose Julian Irizar alkate zela aurkeztu nuen udaletxean, baina hortan gelditu zen. Gehienbat Aitor Esnalek bultzatu du lana aurrera eramatea. Hartziko oinarriaren gainean brontzezko eskultura du: danbolina, txistua, txapela eta txistulariaren perfila. Txistularia aipatu nahi izan dut. Txistulariaren beraren gorputza ez da ikusten, adierazpen berezi bat ikusten da. Txistulari bat ondo ikusten baduzu, ez dizu gauza handirik esaten. Hemen silueta baten moduan ikusten denez, barrenera sartzen zaizu.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎ 725682 ☎ 722292



BAPRI

ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA




Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA

Prentsaren papera eu

Egunkariaren aldeko plataformak an

Herritar ugari bildu zen hilaren 18an Legazpi Dorretxean, Egunkariaren aldeko plataformak antolatutako "Prentsaren papera euskal gatazkan" izenburua zuen mahainguruan.

Bertan, Argia astekariko kazetaria den Mikel Asurmendi moderatzaileak gidaturik, Mikel Aramendi Herri Irratiko kazetariak, Gorka Landaburu El País egunkariko kazetariak eta Txema Ramírez De la Piscina EHUko irakasleak parte hartu zuten. Hirurek prentsak euskal gatazkan duen paperari buruz luze eta zabal hitz egin zuten eta herritarren galderak erantzun zituzten. Ondorengo lerroetan mahainguruan botatako iritzi azpimarragarrienak biltzen saiatu gara.



Mikel Aramendi

“Kazetaritzaren arazo nagusia morrontza politikoa da. Estrategia politikoak nagusitu dira ikuspegi informatiboari”

“Azken urteotan politika frontismo bat sortu da eta hau zuzen zuzen komunikabideetara pasa da. Komunikabide gehienak lerrokatuak daude eta gutxi dira lerrokamendutik ateratzeko ahalegina egiten duten kazetariak”

“Ez dut uste iritzi publikoa komunikabideok egiten dugunik. Jendeak bada-ki bere kabuzko iritziak sortzen”

“Komunikabideetan eta espainiar gizartean oro har sektarioa izatea arrakastarako garantia bihurtzen ari da”

“PPko gobernuari gustatu egiten zaio iritzia emateko modu hori: adostasuna bilatzera baino iritzia inposatzera zuzentzen dena. Iritzia argudiorik gabe botatzen da”

“Komunikabide publikoek egungo kontrol politiko administratiboa baino gauza ukigarriagoa izan beharko lukete.

Independentziaren aldeko legedia ipin daiteke, bertan lan egiten dutenak unean-uneke politikaren hain morroi ez izatera behartuko dituen mekanismo bat”



Hitza hartzen lehena Mikel Asurmendi moderatzailea izan zen, noski. Partehartzaileei hitza eman aurretik, trantsizio garaiaz geroztik euskal prentsan eta gatazkan emandako faseak aipatu zituen. “Trantsizio hasierako kazetaritza arautu gabeko kazetaritza zen, baina gaurkoa baino sormen eta konpromiso handiagokoa. 80ko hamarkadako mugarriak, berriz, ETAREN Hipercor-eko atentatua eta Ajuria Eneako ituna izan ziren. Itunak hedabideak disziplinatuta zituen. Politikoen diskurtsoa kazetaritzaren diskurtsoa izatera pasa zen: demokratikoa eta biolentzako. Kazetaritza Ajuria Eneako itunaren dikotomiaren ildo-

an sartu zen. Hurrengo jautzia 90eko hamarkadan eman zen ETAK Miguel Angel Blanco hil zuenean. Handik gutxira Lizarra-Garaziko akordioa gauzatu zen eta bi paradigma agertu ziren hedabideetan: manipulazio politikoaren paradigma (Euskal Herriko eskubide demokratikoak terrorismoarekin identifikatzen dira komunikabideetan) eta informazioaren espektakulua. Kazetaritzak ez ditu gertakariak ulertarazten eta fronte hitza indartu zuen. 2000. urtean ETA kazetarien aurka jotzen hasi zen eta PP eta PSOEek “Pacto por las libertades” ituna sinatu zutenetik hedabideek itun horrek dioena jarraitzen dute”.

iskal gatazkan tolatutako mahaingurua



Gorka Landaburu

“Dena ez da zilegi terrorismoaren aurka, baina terrorismoa onartezina da. Komunikabideek beligeranteak izan behar dute hiltzaileekin eta ez da hitzen beldur izan behar”

“**Komunikabideei zentzutasuna, zuhertasuna eta hausnarketa eskatzen diet. Ezin dugu gasolina gehiago bota sutara. Elkarrizketak soilik konpon dezake gure arazoa**”

“Euskadi eta Katalunian terrorismoari buruzko informazioa Madrilen baino ñabardura gehiago aztertzen da”


“**Komunikabideen papera oso garrantzitsua da, botereen eta gizarte zibilaren arteko transmisio uhala baitira**”

“Nazionalistak eta ez nazionalistak ulertzeraz kondenatuak daude eta komunikabideek hortan lagundu behar dute”

“**Objetibitatea lortzea oso zaila da, komunikabideak enpresak baitira eta jabeek emaitzak nahi baitituzte**”

“Europako prentsa erregional onenetakoa dugu, baina independenteagoa izatea nahi nuke”

“**Irlandan prentsak hemen baino bide hobea hartu du, baita politikariek ere**”



**Txema Ramírez
De la Piscina**

“**Trantsizio garaian inozoagoak ginen eta gauzak txukunago egiten ziren. Baina orduan ere manipulazio informatiboa bazegoen**”

“Kazetaritzaren munduan dauden arazorik handienak kontrol ekonomiko eta ideologikoa eta kazetarien artean dagoen gogo eza dira. Prentsaurrekoetan ez dago apenas galdera kritikorik”

“**Espainian euskal auziaren inguruan medio handien eragina erabatekoa da, ez baitute kontrastatzeko aukerarik**”

“Planteatzen dugun irtenbidea bakerako kazetaritza egitea da. Hitzak desarmatu eta arrazoiak indartu behar dira”

“**Kazetariaren aldetik sen kritikiko minimo bat ere behar da**”

“Prentsa abertzalea orekatuagoa da Madrilgo prentsa baino, besteak beste, arazoa hobeto ezagutzen duelako eta gobernuen iturriekiko menpekotasun gutxiago duelako”

“**Objetibotasuna ez da esistitzen, baina egiari errespetua zor zaio, iturri ezberdinak erabili behar dira, informazioa kontrastatu behar da... subjektibitate zintzoa eskatu behar da**”

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioloko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa.

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbica

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Geltokietako jaiak 2003

UZTAILAK 11 OSTIRALA

19:00 - Jaien hasierako txupinazoa Aldiri Kultur Elkarteko konpartsarekin, buruhandiekin, dultzainariekin eta hurbiltzen diren guztiekin.

Ondoren, partxis herrikoia.

19:30 - Poteo herrikoia trikitixarekin.

23:00 - Berbena Joselu Anaiak taldearekin.

00:00 - Aldapa txarangarekin kalejira.

UZTAILAK 12 LARUNBATA

13:00 - Zumarragako Musika Bandaren kontzertua.

15:00 - Derrigorrezko siesta (bakoitzak bere etxeko ohean).

17:30 - Antzar jokua.

19:00 - Poteo herrikoia auzoko trikitixarekin.

19:30 - Lurra eta Irrintzi dantza taldeek gure kaleak alaituko dituzte.

20:15 - Abesbatzen jaialdia Lourdesko Ama elizan.

22:30 - Axeri taldearekin antzerkia Domingo de Mendiaraz plazan.

00:00 - Dantzaldia Ateneo mariatxi taldearekin.

01:00 - DJ festa Apain tabernan.

UZTAILAK 13 IGANDEA

07:30 - Gosaldu bitartean bazkari herrikoia prestaketa.

09:30 - Kalejira bi herriotako txistulariekin.

12:00 - Meza nagusia auzoko hildakoen alde.

12:30 - Iparraldeko herri kirolak (Laparasa eta Tubi) eta aizkolari gazteak (Ugaitz eta Aratz Mugerza).

14:30 - Trikitilari eta bertsolariekin girotutako bazkari herrikoia

18:30 - Asto lasterketa mundiala.

19:30 - Aldatz Gora fanfarrea.



www.megadenda.com

ramos

Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx

Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburuan



ZORIONAK!



Ainara



Aitor



Alberto



Alexander



Amaia



Arane



Asun



Beñat



Bisi



Casi



Cristina



Ekaitz



Eli



Ester



Floren



Gorka



Gurutze



Ibon



Imanol



Iñake



Iñaki



Iñaki



Iñaki



Iñigo



Iñigo



Iñigo



Iraia



Itziar



Janire



Jesus



Jon



Jon



Jon



Jone



Jone



Jose Antonio



Jose Inazio



Jose Manuel



Juan Mari



Juanito



Julen



Laura



Leire



Leire



Luis



Luis



Mabel



Mari Carmen



Mari Carmen



Mari Carmen



Mari Jose



Maria Jesus



Marian



Mikel



Mila



Mirari



Miren



Mirian



Nekane



Nerea



Peio



Pia



Raquel



Usua

Zorionak denei eta ondo pasa Santa Isabel jaiak!

Tourra, herriko txirri



Uztailean Piriniotako eta Alpeetako mendateak Euskal Herritik Frantziako Tourra ikustera joandako milaka zaletuen ikurrinaz jantziko dira. Urretxu eta Zumarragatik ere geroz eta jende gehiago joaten da urtero txirrindularitza zaleen erromeria erraldoi hartara. Hauen artean, Pitu Andueza, Txaje Hurtado, Juanlu Maiztegi, Joseba Segurola eta Anes Urbegain izango dira. Bost lagun hauek urtero joaten dira astebeterako Tourra ikustera. Aurten lehenengoz Tourra ikustera joateko asmoa baduzue, beraien esperientzia guztiz balagarria izango zaizue.

Anes, Joseba, Juanlu, "Pitu" eta "Txaje" duela urte mordoxka bat hasi ziren Tourrera joaten, hasieran kotxean, ondoren furgonetan eta azken urteotan alokatutako autokarabanan. "Bertan egoten den giroagatik eta gure artean sortzen denagatik hasi ginen joaten. Autokarabana alokatzen dugunetik bizikletak ere eramaten ditugu. Tourra etxean han baino hobe ikus daiteke, baina han primeran pasatzen dugu".

Euskaldun gehienak Piriniotara soilik joaten diren arren, bost lagun hauek ahal duten guztietan Piriniotara eta Alpeetara joaten dira. "Astebeterako joaten gara. Alpeak eta Pirinioak segidan tokatzen badira bietara joaten gara".

Urteen poderioz geroz eta hobe antolatzen dute bidaia. "Autokarabanak sekulako erosotasuna ematen du: komuna, dutxa, sukaldea... barruan ditu eta euria egiten badu ere primeran egon daiteke. Gainera, bertan giro hobea sortzen da: kartatan barruan jokatu dezakegu... Garestia da, baina janaria eta edaria

hemendik eramaten ditugunez...".

Autokarabanan joaten direnetik, gainera, bizikletak ere eramaten dituzte txirrindulariek igoko dituzten mendateak igotzeko. "Txaje ondo prestatua joaten da eta gainontzekook ahal duguna egiten dugu. Juan Luis, berriz, logistika zalea da; bizikleta kontua ez zaio hainbeste gustatzen. Dena den, mendate jaitsieraren bat egiten du".

Dirudienez, "espediziokide" bakoitzak bere funtzioa betetzen du. "Bilera pare bat egiten ditugu bidaia antolatzeko. Txaje eta Anes erosketak egiteaz antolatzen dira, Juanluk nora joan behar dugun erabakitzen du, gidatzeaz gehienbat Anes arduratzen da...".

Urte hauetan guztietan mendate asko ezagutzeko aukera izan dute: Tourmalet-en, Alpe D'Huez-en, Deux Alps-en, Sestrieres-en, Mont Ventoux-en... izan dira. Anes Urbegaini Luz Ardiden gustatzen zaio, Joseba Segurolak, berriz, Mont Ventoux aipatzen du. "Mendate guz-

nduzaleen erronomia

tietan antzeko giroa egoten da. Mendate bezala ezberdindu daitekeena Mont Ventoux da, goialdean ez baitago belarrik. Luz Ardiden-en ere aipagarria da, bertan Laisekak irabazi baitzuen eta sekulako giroa sortu baitzen".

Bidaia norbere kasa antolatzeak xarma berezia du. Halakoetan pasadizoak ere ugariagoak izaten dira. "Jendarmekin, esaterako, istorio ugari izan ditugu. Iaz jendarme bat uneoro gure gainean izan genuen, beste batean jendarme bat gurekin garagardoak edaten hasi zen eta ia moz-kortu genuen... Bestalde, etapa amaitu ondoren, ahalik eta azkarren atera behar da hurrengo mendatean ahalik eta toki onena hartzeko. Iaz jendarme bat gure ondoan jarri zen bizkarra ematen eta ez zigun irte-ten uzten. Autokarabana *puntomuerton* jarri genuen eta hala alde egin genuen. Jendarmeak Italiako Carabinieri-ak baino askoz ere zorrotzagoak dira".

Jendarmeen artean ez ezik, txir-rindularien artean ere nahiko ezagunak egin dira herriko zaletu hauek. Duela urte pare bat, esaterako, Txetxu Rubiera astu-riarrarekin izan ziren.

"Alpeetako mendate bate-an, txirindulariak igo ziren alde beretik jaitsi behar zirenez, denak noiz jaitsiko zain geunden. Txetxu Rubiera jaisten ikusi genuen, Pitu builaka hasi zitzaion eta Rubiera gelditu egin zen. Berarekin argazkia atera genuen. Gehienak nekatuta egoten dira eta ez dira gelditzen, baina bai Rubiera eta bai Txente Garcia oso jatorrak dira".

Txirindularien artean ez ezik, zaletuen artean ere lagunak egin dituzte. "Italiar batzuen lagunak egin ginen eta hurrengo urtean berriro elkarrekin izan ginen. Beste behin, Sestrieres-en

izan ginenean, sekulako eguraldi txarra egin zuen eta bizikletan zihoan ingeles bat gure ondoan gelditu zen atsedean hartzera. Autokarabanan hartu genuen eta jaten eman genion".

"Oso garrantzitsua da mendatera azken momentuan ez joatea"

Tourra gora eta Tourra behera, frantsesez ere zer edo zer ikasi dute jada. "Frantsesa dominatzen duena Pitu da. Arraultzak erostera joan ginen denda bate-ra eta ez genekien nola eskatu. Halako batean Pitu oiloarena egiten hasi zen eta, azkenean, zer nahi zuen ulertu zioten".


Urtetik urtera geroz eta jende gehiago joaten da Tourra ikustera. Bost lagun hauei lehenengoz joango direnentzat

aholkuak eskatu dizkiegu. "Oso garrantzitsu-a da mendatera azken momentuan ez joa-tea, bestela ez baita tokirik egoten. Ahal bada bezperan joan behar da. Bizia izan behar da tokia harrapatzeko, batez ere autokarabanaz bazoaz. Etapa bukatu ondo-ren ere bizi ibili behar da ahalik eta azka-rren jaisteko eta hurrengo mendatera garaiz iristeko. Jaitsieran sekulako karaba-nak egoten dira. Behin Alpe d'Huez-en ez zen jendarmirik inon ageri: hasieran ema-kume bat ibili zen, umea besotan zuela, trafikoa zuzentzen eta berak utzi zuenean mozkor bat hasi zen!". Aholkuekin jarraituz, txirindulariak errespetatzea ere oso garrantzitsua da. "Denok hemengo txirrin-dulariek irabaztea nahi dugu, baina kontuz ibili behar da eta ez zaie txirindulariei bultzatzea egin behar eskatzen ez badute".

Aurten ere bost lagun hauek Tourra ikusten izango dira, noski. "Aurten Alpeetara bakarrik joango gara. Sei egunetarako joango gara: etapa batzuk ikusiko ditugu, mendian ibiliko gara... Azken fine-an Tourra lagunarteko giroan egoteko aitzakia besterik ez da: kartetan jokatzeko dugu bazkaria nork prestatu behar duen eta nork fregatu behar duen erabakitze-ko, bizikletan bueltatxo bat ematen dugu, turismoa egiten dugu, karrera ikusten dugu, hurrengo mendatera irten... eguna bere-hala pasatzen da".

Bukatzeko, hainbeste urtetan Tourrean izan ondoren adituak izango direnez, aurtengo kuniela egiteko eskatu diegu. "Euskaldunen batek irabaztea nahiko genuke, baina seguraski Armstrong-ek irabaziko du. Dena den, honek ere urterean batean pintxatu beharko du. Aurten Mayo fuerte dabil, baina Tourra irabaztekoa beste kontu bat da".





Luis Mari Heras

Guztiok dakizuen moduan, Luis Heras Realarekin liga irabazi duen herritar bakarra da. Luis Aizpurtxun jaio zen, baina 8 urte zituela Zumarragara etorri zen bizitzera. Bera futboleko serio samar hasi zen garaian Urolak ez zuen oraindik jubenil mailako talderik eta lagun baten bitartekaritzari esker Realeko 2. talde jubenilarekin frogak egitera joan zen. Hiru denboraldi eman zituen Realeko jubenil taldean, hiru bigarren taldean (hauetako lehena Urolari utzita) eta beste hiru lehen taldean: 1978-79, 79-80 eta 80-81 denboraldiak. "Hegaleko postuan jokatzeko nuen, ezkerrean zein eskubian. Lehen denboraldian 10 partida inguru jokatu nituen, bigarrean 16-18 inguru eta 1980-81eko aurre-denboraldian txorkatitako lotailu-haustura izan nuen".

Luisen ustez futbol jokoa ez da asko aldatu bere garaietatik, jokalarien soldatak bai ordea... "Prima oso onak genituen, baina fitxak ezin dira konparatu".

Luisen ustez Realaren lehen liga lortu zueneko denboraldian ez zuen jokaterik izan eta, artean guztiz osatu gabe zegoela, 24 urterekin, talde txuri-urdinak baja eman zion. "Real nire etxetzat nuen jada eta oso gogorra izan zen kanpoan gelditzea". Nola edo hala osatu ondoren, Burgos, Alavés, Lorca eta Alzira taldeetan jokatu zuen. 29 urterekin futbola utzi zuen eta bi urte beranduago Arkupe taberna ireki zuen.

Luisen ustez futbol jokoa ez da asko aldatu bere garaietatik, jokalarien soldatak bai ordea... "Prima oso onak genituen, baina fitxak ezin dira konparatu".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Kirolaria.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira joatea, paseatzea...

-Bizitzeko toki bat?

Zumarraga.

-Zure garaiko Realeko gustuko jokalaria?

Zamora. Realean nengoela hasi nintzen bera miresten. Aulkitik partida asko ikusi nituen eta txunditurik uzten ninduen.

-Egungo Realeko jokalaririk gustukoena?

Xabi Alonso eta Nihat.

-Realak hain denboraldi bikaina egitea espero al zenuen?

Aurreko denboraldiak baino hobea espero nuen, baina ez hain ona.

-Zein izan da denboraldi bikain honen gakoa?

Nire ustez bi pertsona dira klabeak: Olabe eta Denoeuix.

-Nola gogoratzen dituzu lehen liga irabazi zenueneko ospakizunak?

Amets baten antzerakoa izan zen, laino artean bageunde bezala. Oso polita izan zen.

-Zer atsegin duzu gehien Zumarragako jaietatik?

Gazte giroa asko atsegin dut. Zoritxarrez urtean zehar ez dugu giro hori.

-Jaietako zer edo zer aldatuko zenuke?

Kulturan dabilen jendea lan ona egiten ari dela uste dut.

-Ileheriak ala beltzaranak?

Bietakoak, baita ilegorriak ere.

-Egindako azken oparia?

Lore sorta bat.

-Eta jasotakoa?

Afari bat.

-Data bat?

Oporretako lehen eguna.

-Neska eta mutil izen bana?

Emaztearena, bi alabena eta amarena: Josune, Nora, Nagore eta Juliana. Mutilena, bat ere ez bereziki.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Mundo Deportivo eta Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Albistegiak eta naturari buruzkoak atsegin ditut.

-Bereziki gorroto duzuna?

Hotel Glam eta antzerakoak.

-Liburu bat?

"La rosa del desierto".

-Filme bat?

"Bailando con lobos".

-Gustuko abestia?

Reggae-a atsegin dut.

-Soinu bat?

Pianoarena.

-Usain bat?

Basoko larrosarena.

-Janari bat?

Ehiza gisatua.

-Ura ala...

Unearen arabera.

Santa Isabelak 2003

Girorik onena gurean aurkituko duzu!



OSINALDE
KROISANTEGIA



HUTS TABERNA



Politena
taberna

kaketa
kafe

ARKUPE
TABERNA



TINO
kafetegia

LARRUABARRENA
KAFETEGIA
GOZOTEGIA



Hirukia
Taberna



KORTABERRI
TABERNA

EZKIOTARRA
JATETXEA

Alexander
kafetegia

Santa Isabelak 2003

Urretxuko giroa!!

Urretxuko Hamaika Tabernari

Florida • The Intrepid Fox • Laket • Motz
Goiko-Kale • Ezkurra • Navarro • Osaba
Avenida • Buhame • Aldapa

Ondo pasa jaietan!